


# BIDEOAK GORDE ETA PARTEKATZEKO WEB ZERBITZUAK
## SERVICIOS WEB PARA ALMACENAR Y COMPARTIR VÍDEOS

53

**DEFINIZIOA**
**Zer da?**

Izen hori ematen zaie bideoa sortu eta editatzeko programa batez aldez aurretik sortu, grabatu edo editatutako bideoak [Info gehiago 36. fitxan] webgune batean gordetzea eta sarean beste pertsona batzuekin partekatzea ahalbidetzen duten lineako aplikazioei.

Gainera, zerbitzu horiek kontsulta-iturri interesgarri bihurtu dira, bertan bideo-formatua duen edozein eduki-mota aurki baitaiteke.

Eskaintzen duen abantaila argia da: fitxategiak parteka ditzakegu gure posta-mezuetan astunak diren fitxategiak erantsi gabe. Horrez gain, bideoak gure web- edo wap-orrian [Info gehiago 42. fitxan] edo blog batean [Info gehiago 06. fitxan] argitaratzeko kode bat lortzen da.

Edozein gairi buruzko bideoak partekatzeko zerbitzuak daude (Youtube); beste zerbitzu batzuk hartzaile jakin batzuentzat dira (Teachertube, Totlol) eta gai jakin batzuei buruzkoak ere bai: filmak partekatzeko (Megavideo, esate baterako), hezkuntza-bideoak partekatzeko (Sclipo, Videoeducativo.es).

**DEFINICIÓN**
**¿Qué es?**

Se denominan así las aplicaciones en línea que permiten almacenar en un sitio web vídeos previamente creados, grabados o editados con un programa de creación y edición de vídeo [Más info en ficha 36] y compartirlos con otras personas en la red.

Estos servicios se han convertido además en una interesante fuente de consulta donde encontrar todo tipo de contenido en formato de vídeo.

Su ventaja radica en la posibilidad de compartir sin la necesidad de adjuntar archivos pesados en nuestros mensajes de correo. Se obtiene además un código para publicar los vídeos en nuestra página web o wap [Más info en ficha 42] o blog [Más info en ficha 6].

Existen servicios para compartir videos de cualquier tema (Youtube) , otros destinados a un público específico (Teachertube, Totlol) y algunos que se concentran en temáticas concretas: para compartir películas (por ejemplo, Megavideo), para compartir vídeos educativos (Sclipo, Videoeducativo.es).

**BALIABIDEAREN ERABILERA**
**Nola erabiltzen da?**

Zerbitzu horietako gehienak erabiltzeko aurrez erregistratu behar izaten da bideoak artxibatu, argitaratu eta zabaltzeko kontu bat lortzeko. Kontu horiek web-eremu mugatua izaten dute. Erregistratzeko, posta elektronikoko kontu bat eduki behar da.

Partekatutako bideoak bistaratzeko, bideoa argitaratu deneko web-zerbitzuan sartu, bistaratu nahi den baliabidea aukeratu eta haren gainean klik egin behar da, hori baino ez; eta bideo-erreproduzitzailea automatikoki irekiko da [Info gehiago 47. fitxan].

**UTILIZACIÓN RECURSO**
**¿Cómo se usa?**

La mayoría de estos servicios requieren un registro previo para obtener una cuenta donde archivar, publicar y difundir los vídeos. Estas cuentas disponen de un espacio web limitado Para registrase es necesario disponer de una cuenta de correo electrónico.

Para visualizar vídeos compartidos tan sólo hay que acceder al servicio web en que ha sido publicado, seleccionar el recurso a visualizar y hacer un clic sobre él: de manera automática se abrirá el reproductor de vídeo [Más info en ficha 47].

**IKASGELARAKO GOMENDIOAK**

Ikasleek egiten dituzten aurkezpen guztiak argitaratu eta ikastetxeko web-orrira edo ikasgelako blogera lotura egiteko [Info gehiago 06. fitxan]. Hartara, ikusteko aukera ireki eta hezkuntza-komunitatearekin partekatzen dira.
Interneten bideo bat argitaratu baino lehen dagozkion baimenak eduki behar dira (irudi-eskubideak ikasleak agertzen direnean, egile-eskubideak ikasleek landutako bideoetan, etab.). Bestalde, garrantzizkoa da argitaratu baino lehen bideoak berrikusteko mekanismoak ezartzea, eskola-komunitatearen ordezkari gorenek gure alde egin dezaten. Argitalpenak sakabana ez daitezen,

interesgarria izan liteke eskolarako kontu bat sortzea eta bertan sartzeko gakoak irakasle gutxi batzuen esku izatea. Ikasleek lan horietan parte hartu ahal izan dezaten, ADEaren bitartez bideoak gelakide guztien aurrean ematea izan daiteke aukera bat [Info gehiago 28. fitxan], betiere gakoak izartxoen bidez ezkutatuta utzita.

Batzuetan, ordea, film baterako lotura aurkitzeko, eraginkorragoa izaten da interneten barrena bilatzeko tresna irekitzea [Info gehiago 26. fitxan] eta "filmaren izena" + "megavideo" txertatzea. Filmen edo bideoen zatiak bistaratzeko, markatzaile sozialak erabil daitezke [Info gehiago 25. fitxan]; izan ere, bistaratu beharreko sekuentzia mugatzen duten denbora-markak aipatzea ahalbidetzen dute. Zerbitzu horiek erabiltzean, hainbat alderdi eta muga hartu behar da kontuan: eguneroko bistaratze-denborako mugak, bistaratzeko prozesuan etenak eragin ditzaketen nabigazio-abiaduraren inguruko arazoak, segurtasun-aplikazioekin zerikusia duten blokeoak, etab.

**RECOMENDACIONES PARA EL AULA**

Para publicar los vídeos que realizan los alumnos y enlazarlas al sitio web del centro o blog de aula [Más info en Ficha 6]. De esta forma cobran visibilidad y se comparten con la comunidad escolar.
Antes de publicar un vídeo en Internet es necesario disponer de las autorizaciones pertinentes (derechos de imagen en el caso de la presencia de alumnos, derechos de autor en los vídeos elaborados por los alumnos…). Por otro lado, es importante establecer mecanismos de revisión previa a la publicación para contar con el apoyo de los máximos representantes de la comunidad escolar. Para evitar la dispersión de publicaciones puede ser interesante crear una cuenta para la escuela cuyas claves de acceso estén a disposición de un número reducido de docentes. Para que los alumnos puedan participar en dichas tareas una opción consiste en publicar los vídeos ante toda la clase por medio de la PDI [Más info en ficha 28] de modo que las claves quedan ocultas mediante asteriscos.

Una alternativa, a menudo más eficaz, para localizar el enlace a una película, consiste en abrir el motor de búsqueda por Internet [Más info en ficha 26] e insertar "el nombre de la película" + "megavideo". Para la visualización de fragmentos de películas o vídeos es posible utilizar marcadores sociales [Más info en ficha 25] que permiten citar las marcas de tiempo que delimitan la secuencia a visualizar. Hay que tener en cuenta algunos aspectos y limitaciones en el uso de estos servicios: limitaciones en el tiempo diario de visualización, problemas relacionados con la velocidad de navegación que pueden crear discontinuidades de visualización, bloqueos relacionados con las aplicaciones de seguridad…

**GOMENDATUTAKO GUNEAK**
**Non aurki dezaket?**

**YouTube**
http://www.youtube.com/
Lineako bideo-komunitaterik ezagunena da; milioika pertsonak modu originalean sortu diren bideoak topatu, ikusi eta partekatzea ahalbidetzen du. YouTubek foro bat eskaintzen du, jendea konektatzeko eta mundu osoko beste batzuei informazioa emateko eta ideiak iradokitzeko. Banaketa-plataforma bat da eduki originalen sortzaileentzat eta iragarle handi eta txikientzat.

**Youtuberi buruzko tutorialak**
Kontu bat nola ireki eta bideo-artxiboak nola kargatu jakiteko, Edgardo José Zavala Rodríguez-ek landutako tutorial hau kontsulta daiteke:
http://www.youtube.com/watch?v=Lqg8CrcIImI
Bideo bat web- edo wap-orri batean nola txertatu jakiteko tutoriala.
http://www.youtube.com/watch?v=Mq1p49a_zGg
Bideo bat blog batean nola txertatu jakiteko tutoriala.
http://www.youtube.com/watch?v=-Pn_UmVNAHs

**Teachertube**
http://www.teachertube.com/
Hezkuntzan espezializatutako Youtuberen zerbitzu bat da.

**Totlol**
http://www.totlol.com/
Haurrei bideratutako Youtuben zerbitzu bat da.

**Sclipo-ren bideo-liburutegia**
Hezkuntza-bideoak, tutorialak eta eskola filmatuak biltzen ditu. “Akademiek” gehitzen dituzte. Akademiak beren ikastaroen, web-eskolen eta hezkuntza-edukien (dokumentuak eta bideoak) bitartez irakasten duten Sclipoko kideak dira.
http://sclipo.com/content/videos

**Megavideo**
http://www.megavideo.com/
Megavideo izenekoa hainbat motatako baliabideak kargatu, gorde eta erakutsita interneten bideoak

argitaratzea ahalbidetzen duen lineako zerbitzua da.

**Hezkuntzako bideoak**
http://videoseducativos.net/
VideosEducativos.es hezkuntza-materiala legea betez eta doan behera kargatu edo bistaratzeko aukera ematen duen ataria da. Irakaslearen lanerako laguntza-plataforma gisa eta hezitzaileen arteko elkargune gisa pentsatuta dago. Bideoak hezkuntza-arloaren arabera katalogatuta daude; beraz, errazagoa da helburu pedagogikoez baliabideak bilatzea.

**Biosfera proiektuko hezkuntza-bideoak**
http://recursos.cnice.mec.es/biosfera/profesor/videos/videos_actividades.htm
Biologiako eta geologiako hezkuntza-bideoen bilduma, haien bistaratzearekin zerikusia duten jarduerak dituena.

**SITIOS RECOMENDADOS ¿Dónde lo encuentro?**

**Youtube**
http://www.youtube.com/
Es la comunidad de vídeos en línea más popular, permitiendo que millones de personas descubran, miren y compartan videos creados originalmente. YouTube proporciona un foro para que la gente se conecte, informe e inspire a otros en todo el mundo y actúa como una plataforma de distribución para creadores de contenidos originales y anunciantes grandes y pequeños.

**Tutoriales Youtube**
Para saber cómo abrir una cuenta y subir archivos de vídeo se puede consultar el siguiente tutorial elaborado por Edgardo José Zavala Rodríguez:
http://www.youtube.com/watch?v=Lqg8CrcIImI
Tutorial para saber cómo incrustar un vídeo en una página web o wap.
http://www.youtube.com/watch?v=Mq1p49a_zGg
Tutorial para saber cómo incrustar un vídeo en un blog
http://www.youtube.com/watch?v=-Pn_UmVNAHs

**Teachertube**
http://www.teachertube.com/
Es un servicio de Youtube, especializado en educación.

**Totlol**
http://www.totlol.com/
Es un servicio de Youtube, especializado en público infantil.

**Biblioteca de vídeos de Sclipo**
Contiene videos educativos, tutoriales y clases filmadas, añadidos por "academias". Las academias son miembros de Sclipo que enseñan a través de sus cursos, clases web y contenidos educativos (documentos y videos).
http://sclipo.com/content/videos

**Biblioteca de vídeos de Megavideo**
http://www.megavideo.com/
Megavideo es un servicio en línea que permite publicar contenidos en Internet mediante la carga, almacenamiento y exhibición de diversos tipos de medios.

**Videos educativos**
http://videoseducativos.net/
VideosEducativos.es es un portal desde el que se puede descargar o visualizar material educativo de forma legal y gratuita. Está pensado como plataforma de apoyo a la labor docente, y punto de encuentro entre educadores. Los vídeos están catalogados por área educativa, lo que facilita la búsqueda de recursos con fines pedagógicos.

**Vídeos educativos del proyecto Biosfera**
http://recursos.cnice.mec.es/biosfera/profesor/videos/videos_actividades.htm
Colección de vídeos educativos de biología y geología, con actividades relacionadas con su visualización.